



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2016KO UZTAILAREN 1EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2016.07.01.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Zinegotziak:

Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Mentxu Peña Lizarazu and., kanpoan dagoelakoz.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Jose M. Almandoz Tellechea jauna: Arau Subsidiarioen aldaketaren behin-behineko onspena.
- 3.-Lorenzo Larrechea Goñi jauna: herri lurra erabiltzeko eskaera.
- 4.-Arantzako bestak.
- 5.-Alkatearen ebazpenak.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2016ko ekainaren 17an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-JOSE M. ALMANDOZ TELLECHEA JAUNA: ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.

Gai hau mahaian uttzi da Nafarroako Gobernuak txostena igortzeko duen epea bukatu arte.

3.-LORENZO LARRECHEA GOÑI JAUNA: HERRI LURRA ERABILTZeko ESKAERA.

Ikusirik Lorenzo Larrechea Goñi jaunak aurkeztutako eskaera, 6. poligonoko 91. lur zatia erabiltzeko baimena eskatuz.

Kontuan hartuz aipatutako lur zati hori herri landaketa egiteko egokia dela eta Udalak hori aurreikusten duela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Lorenzo Larrechea Goñi jaunari ez ematea 6. poligonoko 91. lur zatia probexteko baimena eta bertze lur zati bat proposatzeko planteatzea.
- 2) Akordio hau Lorenzo Larrechea Goñi jaunari jakinaraztea.

4.-ARANTZAKO BESTAK.

Ikusirik 2016ko bestetako egitaraua, 13tik 16ra, biak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2016ko bestetako egitaraua onartzea.

6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2016ko 88. ebazpenetik 94. ebazpena arte.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

8.- MEDIKUAREN ETXEKO BIZITZA ALOKATZEKO ESLEIPENA.

2016ko maiatzaren 6an egindako bileran Udalak erabaki zuen medikuaren etxeko bizitza alokatzeko esleipena eta plegu administratiboa onartzea eta interesatuek izena emateko epea irekitzea 2016ko ekainaren 30a arte.

Epearen barne proposamen bakarra aurkeztu da: Estibaliz Iparraguirre Madariaga andrearena.

Ireki da dokumentazio administratiboaren kartazala eta eskatzen den guztia aurkeztu da.

Proposamen ekonomikoa ireki ondoren hau da emandako prezioa: 355,00 euro/hileko.

Kontuan hartuz pleguan ezarritako baldintzak,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Estibaliz Iparraguirre Madariaga andreari behin behineko esleitzea medikuaren etxeko bizitzaren alokairua, hileroko 355,00 euro ordaintzeko baldintza pean.

9.-INFO7 IRRATIA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Info 7 irratiak aurkeztutako diru laguntza eskaera eta proposamena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Info7 Irratiari laguntza ematea 2016ko besten publizitatea eginez, aste batez soinu dei bidezko promozioarekin.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

10.-ESTHER BURLADA AROCENA ANDREA: HERRI LURRA OKUPATZEKO BAIMEN ESKAERA.

Ikusirik Esther Burlada Arocena andreak aurkeztutako baimen eskaera, Goiko Karrikan uztaila eta abuztuko hilabetetan mahaiak eta aulkiak jartzeko.

Ikusirik dagoen paretaren egoera aztertu behar dela eta saihestu edozein arrisku.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Esther Burlada Arocena andreari baimenik ez ematea Goiko Karrikan mahai eta aulkiak jartzeko aipatutako arrazoiagatik.

11.-BIDEA MOLDATZEKO DIRU LAGUNTZA.

Ikusirik Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilariaren 220/2016 Foru Agindua, ekainaren 16koa, non "Aientsa auzoko bidea moldatzeko" izeneko inbertsioa presa handikoa dela deklaritzen du eta 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plan Arruntean sartu.

Ikusirik obraren plan finantzarioa onartu behar dela.

Ikusirik obraren finantza plana:

-Obraren kostoa: 2.747,53 euro.

-Toki Administrazioko Departamentuko diru laguntza: 1.923,27 euro.

-Udaleko 2016ko aurrekontuaren errekurtsoekin (1-4121-69200 partida- Mendiko eta pisten mantenimendua): 824,26 euro.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aientsa auzoko bidea moldatzeko plan finantzarioa onartzea.

2) Aipatutako plana Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

